

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri eta landa Ondasun Higiezin gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2024ko erroldak

Arabako Foru Aldundiak Peñacerrada-Urizaharreko udal barrutian dauden landa eta hiri Ondasun Higiezin gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2024ko ekitaldiko erroldak egin ditu. Horiek horrela, jendaurrean jartzen dira hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek epe horretan aztertu eta egokiak derizteten erreklamazioak eta oharrak egin ahal izan ditzaten, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, zerga hori arautzen duenak, 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Erreklamaziorik ez badago, behin betiko onetsizat joko dira.

Agiriak Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren bulegoetan daude interesa dutenen eskura.

Peñacerrada-Urizaharra, 2024ko maiatzaren 10a

Alkatea
JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO